

# BIZI IZAN

## MÉLODIE PEIGNAUX

APIRILAK 11-27, HARISMENDI PLAZA, ARBONA

Arbonako serordegian egiten dudan lehen erakusketa hunentzat, lekuan bertan proiektatzea erabaki dut: jatorrizko piezen erabilera berriz eguneratuz, serorak berak aterpetu izan banindu bezala.

Mihise, mahai-zapi, sukaldeko oihal, ehun eta erridauek obra inguratzen dute. Oihalak nire margolanetan ere agertzen dira, lo den gorputz baten azpian zimurtuak, ohe baten ertzean botata edo soka batean zintzilik; guztiek intimitate komun bat kondatzen dute.

Nire lanaren zati batek paisaia anodinoak irudikatzen ditu, etxeko animaliak edo abeltzaintzakoak, haien edertasunaren kontzientzirik ez duten erara.

Leku honentzat bereziki egindako obra bat presentatzen dut, etxeko espazioa eta sorginaren atributua irudikatzen dituen. In situ egindako obra honek XVI. mendean Elizak akelarrean parte hartu izana egotzi zien emakume independente eta autonomoei egiten die erreferentzia. Basoan bildutako ihi-adartxoak erabili ditut, beste hiru emazterekin elkarlanean. Gero, txirikorda eta zera-mikazko pieza apaingarriak egin ditut.

Obra batzuek amatasunaren gaia lantzen dute; gaia berriz ere intimoa eta arrunta da, eta plastikoki esploratu nahi nuen.

Erakusketa hunek irakurketa bat baino gehiago ditu; etxea, etxeko espazioa, argitutako leihoaren bizia eta metaforikoki, emakumea, ama eta sorgina.

Nire izena Mélodie Peignaux da, 34 urte ditut eta Gers eskualdekoa naiz. Urte batzuz bizi izan naiz Euskal Herrian, Donibane Lohizune eta Ziburun, eta duela gutti Landesetan instalatu naiz.

Nire obrentzat egunerokoan, ingurumenean eta bertan egiten ditudan topaketetan oinarritzen naiz. Argazki eta bideo arrasto-bilketa sensible baten bidez diseinatutako obrak (margolanak, zeramikak, objektuak, altzariak eta animazioak) paisaia arruntak dakarren poesia karga ikustaraztea helburu duten proposamenak dira.

Haien karakter ohizko, intimo, moteltasun edo errikapenez josiak, nere sorkuntzek bizidunen eritmoa eta poesiaren behaketa sustatu nahi dute. Guztiontzako hizkuntza komun baten proposamenak dira.

Texte traduit du français vers le basque par Eki Solorzano



# HABITÉE

## MÉLODIE PEIGNAUX

11-27 AVRIL, PLACE HARISMENDI, ARBONNE

Pour cette première exposition à la Benoîtterie d'Arbonne, j'ai choisi d'investir le lieu en réactualisant l'usage des pièces à l'origine, comme si j'avais été hébergée par la benoîte.

Draps, nappes, torchons, tissus et rideaux enveloppent les œuvres. Le linge s'invite aussi dans mes peintures, froissé sous un corps endormi, jeté sur un bord de lit ou flottant sur un fil, il raconte une intimité commune.

Une partie de mes travaux représente des paysages anodins, des animaux domestiques ou d'élevage, campés comme des beautés qui s'ignorent.

J'ai réalisé une œuvre pour le lieu spécialement, qui évoque à la fois l'espace domestique et l'attribut de la sorcière. Cette œuvre in situ fait référence aux femmes suspectées par l'Eglise au 16ème siècle d'avoir participé au prétendu sabbat, du fait de leur indépendance et leur autonomie.

J'ai récolté les brins de genêt chez moi en bordure de forêt avec trois autres femmes. J'ai ensuite réalisé le tressage et la pièce de céramique ornementale.

Quelques œuvres abordent la maternité, sujet à nouveau intime et trivial que je voulais explorer plastiquement.

« Habitée » a donc plusieurs lectures, l'adjectif désigne la maison, l'espace domestique, par la fenêtre allumée le vivant, et au sens figuré la femme, mère et sorcière.

Je m'appelle Mélodie Peignaux, j'ai 34 ans et je suis originaire du Gers. J'ai vécu plusieurs années au Pays Basque, à Saint-Jean-de-Luz et Ciboure et je suis maintenant installée dans les Landes.

Je m'inspire de mon quotidien, de mon environnement et des rencontres que j'y fais. Conçues à partir de collectes d'empreintes (photographiques et vidéos), issues d'une enquête sensible, les œuvres restituées (peintures, céramiques, objets, mobilier, animés) amènent à percevoir et/ou reconnaître la charge poétique qui sommeille dans le paysage ordinaire.

Par leur caractère familial, intime, parfois bercées de lenteur, de répétitions, mes productions visent à encourager l'observation du vivant, la poésie de son rythme. Elles sont aussi la proposition d'un langage commun à toustes, et invitent à reconsidérer le chiant comme la pluie et con comme la lune.

Texte traduit du français vers le basque par Eki Solorzano

